Jose Luis Ansorenak sortu zuen 1976an. Errenteriako Orereta Ikastolan eta beste zenbait ikastetxetan koru-kantua bultzatzeko egin zuen heziketa-lanak, Oiñarri emakumezko koruaren sorreran izan zuen bere gailurra, haurren koruko kideak hazten hasi zirenean. Gazteen koru hau Andra Mari Abesbatzaren oinarria da gaur egun. Era berena koru-zuzendaritza ikasteko eskola da eta bertatik balio handiko zuzendariak sortu dira. MUSIKASTE 79an neska-mutilen koru bihurtu zen eta orduz gero kontzertu asko eman ditu Euskal Herrian zehar. Candas, Torrevieja, Avilés, Burgos, eta Zaragozako jaialdi eta lehiaketetan parte hartu du. 1983, 1984 eta 1987an Madrilgo Kultur Ministeritzako Gazteriaren Zuzendaritza Nagusiak aukeratu zuen Cuenca-ko Polifoniako Gazte-topaketetan parte hartzeko. Xabier Vesgak zuzentzen du gaur egun taldea.

*Fue fundado en 1976 por José Luis Ansorena. La tarea de educación para el canto coral que él mismo realizó en la ikastola Orereta de Rentería y en otros centros de enseñanza, culminó con la creación del coro femenino Oiñarri, cuando los componentes del coro infantil fueron madurando. Esto coro juvenil vino a ser la base y comienzo (Oiñarri) de la Coral Andra Mari, que tiene es esta agrupación su propia cantera.*
*Sirve al mismo tiempo de escuela de dirección coral, de donde ya han surgido importantes valores. En MUSIKASTE 79 se presentó como agrupación mixta y desde entonces ha multiplicado sus actuaciones en el Pais Vasco.*
*Ha participado en festivales y concursos en Candas, Torrevieja, Burgos, Zaragoza, Avilés...*
*en 1983, 1984 y 1987 fue seleccionado por la Dirección General de la Juventud del Ministerio de Cultura (Madrid) para participar en el encuentro de Polifonía Juvenil de Cuenca.*
*Actualmente dirige el coro Xabier Vesga.*

## KANTA CANTEMUS KORUA

1995eko urtarrilean sorturiko emakumezkoen kamara abesbatza da. Javier Bustoren zuzendaritzapean kantatzen du. Kantu heziketa sendoko kantariak dira eta ahots berdinetarako idatzitako musika ikertzeko eta garatzeko biltzea erabaki dute.
Entzulegoarenganaino hurbiltzeko asmoz sortu da abesbatza. Musikagileak edertasunaren mesedetan prosezu sortzailean zehar "ordenatzen" dituen hotsak gozaraztea da abesbatzak duen beste helburuetariko bat.
1995eko maiatzaren 2an eman zuen lehenengo kontzertua Beasainen eta ekainaren 23an Donostian egin zuen bere aurkezpena. Era berean, koruak ondoko hiru emanaldi hauek burutu ditu: Madrilen, Santiago eta San Juan Bautista Elizan; San Clementeko (Cuenca) Gabonetako Polifoniako VIII. Zikloa; Valladoliden, Gabonetako Koru Musika eta Organoko XV. Erakustaldia.

*Coro de Cámara femenino, constituido en enero de 1995. Sus componentes , de sólida formación coral, deciden reunirse para el estudio y desarrollo de la música escrita para voces iguales.*
*El coro nace con la idea de acercarse al público, con una clara intención de "recrear" los sonidos que los compositores "ordenan" en su proceso creativo, con el único fin de conseguir la belleza.*
*El coro realizó su primer concierto en Beasain, el 12 de mayo de 1995. El día 23 de junio se presentó en San Sebastián.*
*Madrid en la iglesia de Santiago y San Juan Bautista; VIII Ciclo Navideño de Polifonía en San Clemente (Cuenca); "15ª Muestra de Música Coral y Organo" de Navidad en Valladolid; Fuenterrabia, y San Sebastián, han significado las últimos actuaciones del coro.*

# GERNIKAKO ANDRA MARI KORALA

1978an sortu zen desagertu berria zen "Santa Cecilia" Orfeoiaren abeslari batzuekin Jose Antonio Aranaren zuzendaritzapean. Gero, urte oparoak etorri zitzaizkion, Euskal Herriko bazter guztietan emanaldiak eskainiz. Garai honetan emandako kontzertuen artean ondoko hauek azpimarra daitezke, besteak beste: 1983ko MUSIKASTE; Gorka Sierraren "Dies Irae" eta Usandizagaren "Umetzurtza" musika-lanen estreinaldia; Radio Nacional-erako grabazioak... 1989an Fernando Abaunzak hartu zuen koruaren zuzendaritza. Etapa berri honetan, koruak bere errepertorioa berritzeari ekin zion eta jende gaztea sartzen hasi zen neurrian, korua bera ere gaztetu zen. Azken urte hauetan era guztietako kontzertuak eman ditu: folklorikoak, sinfoniko-koralak, berpizkundekoak, polifoniko-erlijiosoak, gabon-kantak, musikagile berrien lanak, etab... Kontzertu gehienak Euskal Herrian eman baditu ere, Iparraldean aritzeaz gainera, Mallorkan, Asturiasen, Aragoian, Errioxan eta beste zenbait lekutan kantatu du.

Alemanian zehar ere bi itzuli burutu ditu. 1991n "Marijesiak-Gabon Kantak" izenburupean hogei abesti inguruz osatutako grabazio bat burutu zuen. Grabazio honetatik Europistas-ek hautaketa bat egin zuen eta kasete bat atera zuen bezeroen artean banatzeko. 1994z geroztik Ana Elorzaren laguntza estimagarriari esker, ahots-teknika lantzen du. Gaur egun Andra Mari Koralak 55 kantari inguru ditu, gehienak 15 eta 30 urte bitartekoak.

*Se crea en 1978 con algunos coralistas procedentes del entonces desaparecido Orfeón "Santa Cecilia" y bajo la dirección de Jose Antonio Arana.*

*Se suceden años de intensa actividad coral con una gran profusión de conciertos por toda Euskalerria. De esta época caben destacar: la participación en Musikaste-83; estrenos de obras como el "Dies Irae" de de Gorka Sierra y "Umezurtza" de Usandizaga ; grabaciones radiofónicas para Radio Nacional, etc...*

*En 1989, tras la marcha de Arana es llamado a ocupar la dirección Fernando Abaunza, procedente del grupo música antigua "Berdizkunde".*

*Esta nueva etapa se inicia con una renovación total del repertorio y un paulatino relevo de coralistas con gente más joven.*

*En los últimos años se han ofrecido diversidad de conciertos de toda índole : folklóricos, sinfónico-corales, Renacimiento, polifonía religiosa, villancicos, obras de autores contemporáneos, etc.*

*Si bien la mayor parte de las actuaciones se circunscriben al ámbito de Euskalerria, también ha cantado en lugares como Mallorca, Asturias, Aragón, La Rioja, Iparralde, etc... así como dos giras por Alemania.*

*En 1991 realizaron una grabación en la que se recogen una veintena de villancicos bajo el tirulo "Marijesiak-Gabon Kantak". Desde mediados de 1994 Andra Mari cuenta con la inestimable colaboración de Ana Elorza quien se encarga del aspecto de técnica vocal.*

*En la actualidad ANDRA MARI KORALA cuenta con 55 coralistas la mayoría de los cuales con edades comprendidas entre 15 y 30 años.*

# TOLOSAKO HODEIERTZ ABESBATZA

1983an sortu zen eta gaur egun Enrique Azurza da bere zuzendaria. Sari ugari eskuratu ditu: Avilés-en Lehenengo Saria (Asturias 1987), EAEko Gazte Korurik Hoberena (Gasteiz 1988), Ejea de los Caballeros-en Lehenengo Saria (Zaragoza 1989), Neerpelt-en Lehenengo Saria "Cum Laude" (Belgika, 1990), Tolosako Epaimahaiaren Aipamen Berezia (1990), Varna-n (Bulgaria, 1991) kamara-koruetan Lehenengo Saria, ahots nahasietako koruetan Lehenengo Saria, lehiaketako korurik hoberena eta zuzendaririk hoberena. 1992an Gorizia-n (Italia) kantatu zuen Abesbatzen Kantuko Europako Sariketa Nagusian (Europako sei lehiaketarik garrantzitsuenetan irabazitakoek soilik parte har dezakete) eta Tolosako Lehiaketan Hirugarren Saria irabazi zuen Folklore sailean.

Era berean ondoko jaialdi hauetan parte hartu du: Donostiako Hamabostaldian (1992 eta 1993), Missoula-ko (Montana USA) Nazioarteko Jaialdian eta Atlantan (Georgia USA) 1993an eta Marsellako (Frantzia, 1995) Abesbatzen Kantuko Nazioarteko Ihardunaldietan. Abesbatzen Musikako Nazioarteko Federazioak aukeratu du datorren abuztuan Sydney-en (Australia) burutuko den Abesbatzen Musikako Munduko IV. Simposioan parte hartzeko.

*Hodeiertz se funda en 1983 y en la actualidad Enrique Azurza es su director. El coro ha obtenido numerosos premios: Primer premio en Avilés (Asturias, 1987), mejor coro juvenil de la C.A.V. (Vitoria 1988), Primer premio en Ejea de los Caballeros (Zaragoza, 1989), Primer premio "Cum Laude" en Neerpelt (Bélgica, 1990), mención Especial del Jurado en Tolosa (1990), Primer premio en coros de Cámara. Primer premio en coros mixtos, mejor coro del concurso y mejor director en Varna (Bulgaria, 1991). En 1992 tomó parte en el Gran Premio Europeo de Canto Coral en Gorizia, Italia (sólo los ganadores de los seis más importantes concursos corales europeos que participan), y ganó el tercer premio en la modalidad de folklore en Tolosa.*

*Ha participado también en diversos festivales: Quincena Musical de San Sebastián (1992 y 1993), Festival Internacional de Missoula (Montana, USA) y Atlanta (Georgia, USA) en 1993, Jornadas Internacionales de Canto Coral en Marsella (Francia, 1995). El coro ha sido seleccionado por la Federación Internacional de Música Coral para participar en el IV Simposio Mundial de Música Coral que tendrá lugar en Sydney (Australia) el próximo mes de agosto.*

Errenteriako Andra Mari Abesbatzaren historia 54. orrialdean
*Historia de la Coral Andra Mari de Rentería en página 54*

# IRUÑEKO KAMARAKO KORU ELKARTEA

Antzinako musika lantzeko sortu zuen Luis Morondo maisuak. Gero, era guztietako musika lantzeari ekin zion. Ondoko jaialdi hauetan parte hartu du, besteak beste: Kapera Santuko Nazioarteko Jaialdiak, Vincennes-eko gaztelua, Pariseko Royaumont-eko Abadia, Lieja, Besançon, Argel, Gratz, Toulon, Dijon, Spletto, Viena... 2.500 kontzertu baino gehiago eman ditu munduko aretorik ospetsuenetan: Madrileko Teatro Real-en, Auditorio Nazionala, Buenos Aires-eko Colón Antzokia, Pariseko Gaveau Aretoa, Florentziako Pergola Antzokia, La Habanako Antzoki Nagusia, Amsterdameko Conzertgebow, Montevideoko Sodre Antzokia, Tangereko Mauritania Antzokia, Hannover-ko Volksbune Aretoa, Vienako Konzerthaus, New York-eko Town-hall, Veneziako Sta Stae... 1981ean, Luis Morondo hil zenean, José Luis Eslavak hartu zuen zuzendaritza 1994ko otsailera arte. Gero, gaur egun bere zuzendaria den Maximo Olorizek hartu zuen zuzendaritza.

*Fue creada por el Maestro Luis Morondo para el cultivo de la música antigua. Más tarde amplió su repertorio a toda clase de música coral. Ha acudido con frecuencia a festivales como los Internacionales de la Santa Capilla, Castillo de Vincennes, Abadía de Royaumont de París, Lieja, Besançon, Argel, Avignon, Gratz, Toulon, Dijon, Spletto, Viena...*
*Ha dado más de 2500 conciertos, actuando en las salas de mayor renombre mundial. Teatro Real de Madrid, Auditorio Nacional, Teatro Colón de Buenos Aires, Sala Gaveau de París, Teatro de la Pérgola de Florencia, Gran Teatro de la Habana, Conzertgebow de Amsterdam, Teatro Sodre de Montevideo, Teatro de Mauritania de Tanger, Sala Volksbune de Hannover, Konzerthaus de Viena, Town-hall de Nueva York ,Sta. Stae de Venecia... han sido testigos de los éxitos de la Agrupación de Cámara de Pamplona.*
*En 1981, al fallecer Luis Morondo, se hace cargo de la dirección José Luis Eslava permaneciendo en dicho cargo hasta febrero de 1994, momento en que lo asume Máximo Olóriz, su actual director.*



19
Kapt
Sála
Iglea

96ko maiatzaren 25an, Larunbata, 20,30etan
aptxinoen elizan

ábado, 25 de mayo de 1996, 20,30 horas
glea de Capuchinos

# AMAIERAKO KONTZERTUA
# CONCIERTO DE CLAUSURA

Danzas sabáticas....................................José Mª Sanmartín (Gasteiz 1927-1977)
- Aker dantza
- Ilargi betea
- Sorgin dantza

*Música para unas imágenes (1996)....................................Jesús Mª Echeverría (Olite )

Miserere (1879)....................................Felipe Gorriti (Uharte Arakil 1839-1896)
- Miserere, Coro
- Amplius, solo de Tenor
- Tibi soli, solo de Bajo
- Ecce enim, dúo de Tenor y Bajo
- Auditui meo, Coro
- Cor mundum, Coro
- Redde mihi, solo de Tiple
- Libera me, Coro
- Quoniam, Terceto
- Benigne, solo de Tenor
- Tunc imponent, Coro final

Izaskun Arruabarrena, mezzosopranoa
Jose Vega, tenora
Jose Antonio Carril, bajoa
Errenteriako Andra Mari Korala
Zuzendaria: José Manuel Tife Iparragirre
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Zuzendaria: Jesus Maria Echeverria

* Estrenaldi nagusia

# IZASKUN ARRUABARRENA

Errenterian jaio zen. 10 urte zituenean, Jose Luis Ansorenak sortutako Errenteriako Orereta Abesbatzan hasi zen kantatzen sortzailearen zuzendaritzapean. Gero, lehendabizi Errenteriako Oiñarri Abesbatzan eta gero, Andra Mari Abesbatzan kantatu du. 15 urte zituenean, Juan Eraso irakaslearekin hasi zen kanturako teknika ikasten. 1985etik 1988ra bitartean Donostiako Orfeoiaren Kantu Eskolan aritu zen, Isabel Alvarez-en zuzendaritzapean. 1988-89 ikasturtean Italian izan zen Claude Thiolas maisuarekin eta gero Marcela Reale sopranoarekin ikasten. MUSIKASTE 90ean eta 94an parte hartu zuen. 1995ean Peñaflorida Kaperarekin Jose de Torres-en, Antonio de Líteres-en lanak kantatu ditu Ordizian, Leioan eta Madrilen Jon Bagüesen zuzendaritzapean. 1966ko martxoan, Hondarribiko Aste Sakroan parte hartu du Bruckner-en Requiem-a kantatuz Aita Donostia Orkestrarekin Juan Jose Menaren zuzendaritzapean.

*Nació en Rentería.*
*A los 10 años comenzó a cantar en el Coro Orereta de Renteria, bajo la dirección de su fundador, José Luis Ansorena.*
*Después y sucesivamente formó parte del Coro Oiñarri y de la Coral Andra Mari. ambos de Rentería.*
*A los 15 años tuvo como profesor de canto a Juan Eraso.*
*Desde 1985 hasta 1988 se integró en le Escuela de Canto del Orfeón Donostiarra , bajo la dirección de Isabel Alvarez.*
*En el curso de 1988-1989 estudió en Italia con el maestro Claude Thiolas y más tarde con la soprano Marcela Reale.*
*Ha participado en MUSIKASTE 90 y 94. En 1995 ha cantado con la Capilla Peñaflorida en Ordizia, Leioa y Madrid obras de José de Torres, Antonio de Líteres bajo la dirección de Jon Bagüés.*
*En Marzo de 1996 ha participado en la Semana Sacra de Hondarribia, interpretando el Requiem de Bruckner, con la Orquesta Aita Donostia bajo la dirección de Juan José Mena.*

Jose Mª Sanmartinen biografia 30. orrialdean
*Biografía de José Mª Sanmartín en página 30*

Felipe Gorritiren biografia 18. orrialdean
*Biografía de Felipe Gorriti en página 18*

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa 1982an sortu eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik garaturiko Proiektu Nazionala da.
Bere zuzendari titular nagusienak hauek izan ditu: Enrique Jordá Maisua, 1982an Orkestrari hasierako prestakuntza eman ziona eta ondoren Maximiano Valdés Maisua. Gero Matthias Kuntzsch arduratu zen Orkestraz eta 1988-1993 urte bitartean Gómez Martinez Maisua izan da Musika Zuzendari. Gaur egun Hans Graf eta En Shao maisuak dira Musika Zuzendari lehena eta Zuzendari Gonbidatu Nagusi bestea.
Oso luze joko luke geure kontzertuetan izan ditugun Maisu eta Bakarlari gomitatuak zerrenda batean ezartzeak, baina beraien artean oso izen nabarmenak ageri dira, bai Europako musika-munduan eta baita mundukoan ere.

Orkestrak eskaini ditu jadanik jendaurreko mila berrehun kontzertu eta aintzindari izan da bere Egoitzan entseiu orokor irekiak eskaintzen.
Orkestraren ohizko ihardueren artean ondorengoak aipa ditzakegu:
- Abonu-kontzertuak Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean eta Irunen; aldian aldiko jardunak Getxo, Barakaldo eta beste herrietan.
- Eskolari eta gazteentzako kontzertuak Egoitzan.
- Eguberrietako kontzertuak.
- Herrialdeko Jaialdietan saioak: Musika Hamabostaldia, OLBE Bilboko Opera Denboraldia, Musikaste, Bach jaialdia, Musikaldia.
- Entseiu orokor irekiak Egoitzan.
- 1993z geroztik Orkestrak ekitaldi-sail bat antolatzen du Miramongo bere Egoitzan, "Miramongo Eguerdiak" deritzana. Horietan orkestra bereko erakuntza txikiak, abonu-kontzertuetan programaturiko interpretatzaile gazteak, kamara-koruak eta organojoleak ari izaten dira.

# EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

-Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren Kamara Orkestra. Multzo hau orkestrak erakuntza murriztuarekin operagintza diharduenean antolatzen da. Denboraldian zehar 6 egitarau inguru antolatzen dira kamara-musikarekin.
Urte betean Orkestrak 90 inguru ekitaldi burutzen ditu, entseiu orokor irekiez eta eskola-entseiuez gainera, eta horrela guztira 110 bat eskaintza egiten zaizkie entzuleei.
Bere bizitzan zehar iharduera hauek ere izan ditu:
- Orkestra Gonbidatu gisa kontzertuak honako Jaialdietan: Madrid Cultural, Granada, Expo-Sevilla eta Alicanteko Musika Garaikidearen Jaialdia.
- Jirak: Estatuan zehar: Andaluzia, Castilla-La Mancha, Levante-Kataluinia. Europan zehar: Alemania-Austria, 84, 87 eta 92 urteetan; Gstaadeko Nazioarte Jaialdia, 1995eko uda.

Esan daiteke Euskadiko Orkestra Sinfonikoa sendoturik dagoela antolaketari eta alderdi teknikoari dagokienez, hau da, Euskal Herriaren ohiko jardueran behar bezala erroturik, abonatu eta harpidedun ugarien fideltasunak erakusten duenez.

*Constituye la Orquesta Sinfónica de Euskadi un Proyecto Nacional auspiciado en 1982 y desarrollado desde el Gobierno Vasco, Departamento de Cultura.*
*Sus principales directores titulares han sido: el maestro Enrique Jordá, con quien la orquesta inició su preparación en 1982, y a quien siguió el maestro Maximiano Valdés. Posteriormente se hizo cargo de la Orquesta Matthias Kuntzsch y desde 1988 a 1993 ha contado con el maestro Gómez Martínez como director musical. En la actualidad los maestros Hans Graf y En Shao son, respectivamente, director musical y principal director invitado.*
*Sería una lista muy larga la dedicada a reseñar los maestros invitados y los solitas que han participado en nuestros conciertos, pero entre ellos figuran nombres muy señalados tanto en el ámbito musical europeo como en el mundial.*

*La orquesta ha sobrepasado sus primeros mil doscientos conciertos públicos y ha sido pionera en ofrecer en su Sede ensayos generales abiertos.*
*Las distintas vertientes de su actividad regular son:*
*Conciertos de abono en San Sebastián, Bilbao, Vitoria, Pamplona e Irún; actuaciones puntuales en Getxo, Baracaldo y otras poblaciones. Conciertos para escolares y jóvenes en la Sede. Conciertos de Navidad. Actuaciones en los Festivales del País : Quincena Musical, Temporada de la Opera de Bilbao ABAO, Musikaste, Festival Bach, Musikaldia. Ensayos generales abiertos en la Sede. Desde 1993 la Orquesta organiza un ciclo de actuaciones en su Sede de Miramón que se denomina "Matinées de Miramon". En ellas actúan pequeñas formaciones de miembros de la misma orquesta, jóvenes intérpretes que han sido programados en los conciertos de abono, coros de cámara y organistas.*
*Orquesta de Cámara de la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Este conjunto se organiza cuando la orquesta actúa con formación reducida en la producción de óperas.*

*En la temporada se realizan del orden de seis programas de música de cámara.*
*En un año la orquesta realiza del orden de 90 actuaciones, además de los ensayos generales abiertos y los ensayos escolares, de forma que vienen a efectuarse unas 110 prestaciones ante el público.*
*En su trayectoria ha realizado: Conciertos como orquesta invitada en los Festivales de Madrid Cultural, Granada, Expo-Sevilla, Festival de Música Contemporánea de Alicante.*
*Giras : En el Estado: Andalucía, Castilla-La Mancha, Levante-Cataluña. En Europa: Alemania-Austria, los años 84,87 y 92; Festival Internacional de Gstaad, verano de 1995.*
*Se puede afirmar que la Orquesta Sinfónica de Euskadi se encuentra consolidada tanto en su aspecto organizativo y técnico, como debidamente implantada en el quehacer normal del País Vasco, como lo demuestra la fidelidad de sus numerosos abonados y suscriptores.*

# JOSE ANTONIO VEGA VEGA

1963an jaio zen Donostian eta bertan burutu zituen solfeoko, pianoko eta bibolineko ikasketak. 1981ean Errenteriako Andra Mari Abesbatzan sartu zen eta 1988an Donostiako Orfeoian. Talde honekin Poulenc-en "Gloria", Fallaren "Vida breve", Beethovenen "Fidelio" eta beste zenbait musika-lan horien artean folklorekoak kantatu ditu bakarrik. Kantu eskoletan parte hartu du Juan Eraso eta Almudena Ortega irakasleekin. "Tonino Coscarelli" Fundazioak antolatutako ahots heziketarako ikastaroetan parte hartu du Eduardo Muller eta Marcela Reale maisuekin.

Mozarten Koroazio Mezan kantatu du bakarrik Pariseko Pleyel Aretoan Moskuko Birtuosoekin V. Spirakov-en zuzendaritzapean; Mozarten "Requiem"a Arrasate Musikaleko Orkestrarekin; Mozarten "DOn idatzitako Meza Handia" Bilboko Orkestrarekin Musikalia Jaialdian Helmut Rilling-en zuzendaritzapean; "Gizon armatua"ren eta "Lehenengo Apaiza"ren paperetan Mozarten "Xirula Magikoa"n Donostiako Hamabostaldian (1995) Euskadiko Orkestrarekin Ralf Weikert-en zuzendaritzapean; Mozarten "Misa Brevis" Donostiako Kontserbatorioko Orkestrarekin; Bach-en "140. Kantata", etab... Era berean, zenbait errezitalditan parte hartzeaz gainera Errenteriako "Eresbil-Eresiak" zikloetan esku hartu du euskal musikagileen musika-lanak kantatuz.

*Nació en 1963 en San Sebastián, donde realizó estudios de solfeo, piano y violín.*
*En 1981 ingresó en la Coral Andra Mari de Rentería y en 1988 pasó al Orfeón Donostiarra, con el que ha intervenido como tenor solista en el "Gloria" de Poulenc, "Vida breve" de Falla, "Fidelio" de Beethoven, etc., así como en obras de folklore.*
*Ha recibido clases de canto con los profesores Juan Eraso y Almudena Ortega. Ha asistido a cursos sobre educación de la voz, organizados por la Fundación "Tonino Coscarelli" con los maestros Eduardo Muller y Marcela Reale.*

*Ha cantado como tenor solista en la "Misa de la Coronación" de Mozart en la Sala Pleyel de París con los Virtuosos de Moscú, dirigidos por V. Spivakov; "Requiem" de Mozart con la Orquesta Arrasate Musical; "Gran Misa en Do" de Mozart, con la Orquesta de Bilbao, en Musikalia, bajo la dirección de Helmut Rilling; el papel de "Hombre Armado" y el de "Primer Sacerdote" en la "Flauta Mágica" de Mozart, en la Quincena Musical Donostiarra (1995), con la Orquesta de Euskadi, dirigida por Ralf Weikert; "Misa brevis" de Mozart con la Orquesta del Conservatorio de Donostia; "Cantata 140" de Bach, etc.*
*También ha intervenido en recitales de obras de compositores vascos en los ciclos "Eresbil-Eresiak" de Renteria y en otros recitales.*

# JOSE ANTONIO CARRIL

Donostian jaio zen. Madrileko Kantuko Goi Eskolan burutu zituen kantu-ikasketak Marimí del Pozoren zuzendaritzapean. Era berean, Victoria de los Angeles-en, Teresa Berganza-ren eta Aldo Baldini-ren ikastaroetan parte hartu zuen. Artista-ibilbideari ekin zionetik Espainiako ia orkestra guztiekin kantatu du (Espainiako Orkestra Nazionala, Asturias-eko, Balearretako, Euskadiko, Tenerifeko eta Madrileko Orkestra Sinfonikoak; Kanaria Handiko Filarmonikoa, Espainiako Ganbara Orkestrak eta Reina Sofía...) Espainiako kontzertu-aretorik nagusienetan (Madrileko Errege Antzokia, Musika Auditorio Nazionala, Valentziako, Mallorkako, Santiagoko, Zaragozako Auditorioak etab...) zuzendari ospetsu ugariren batutapean. Ondoko musika-lan hauek kantatu ditu, besteak beste: Charpentier-ren "Te Deum"; Bach-en "Maginificat", "Eguberriko Oratorioa", eta beste zenbait kantata; Haendel-en "Mesias"; Mozart-en "Requiem", "Vesperae solennes de confessore", Koroazioaren Meza" eta beste zenbait musika-lan erlijioso; Schubert-en "Sol Maiorean egindako Meza"; Rossini-ren "Petite Messe Solemnelle"; Saint-Säens-en "Noël-eko Oratorioa"; Dvorak-en "Te Deum"; Fauré-ren "Requiem"; Honegger-en "La Danse des Morts"; Duruflé-ren "Requiem", etab... Era berean, atzerriko zenbait musika-talderekin ere kantatu du: Orchestre Bayonne-Côte Basque, Bratislavako Sinfonikoa, Letoniako Orkestra Nazionala... Azpimarratzekoak dira Moskuko Birtuosoekin eta Wladimir Spirakov zuzendariarekin eman dituen kontzertuak Espainian, Frantzian (Pariseko Pleyel Aretoa) eta Errusian zehar (San Petersburgoko Areto Filarmonikoa eta Moskuko Kontserbatorioko Areto Nagusia). Talde honekin ere, Mompou-ren "Los Improperios" kantatu zuen Colmar-eko Jaialdian (Frantzia) eta harrera oso ona izan zuen bai kritikaren aldetik, bai publikoaren aldetik. Opera-kontzertu asko eman baditu ere, Madrileko "La Zarzuela" Teatro Liriko Nazionalean izan zuen arrakastarik handiena, Mozart-en "Xirula Magikoa" operan "Papageno"ren papera kantatu zuenean. Era berean, ondoko opera hauek kantatu ditu: Purcell-en "The Fairy Queen" eta Dido eta Eneas (Eneas); Telemann-en "Pimpinone"; Mozart-en "Cosi fan tutte" (Guglielmo) eta "Figaroren Ezteiak" (Figaro); Rossiniren "La cambiale di matrimonio" (Slook) eta beste asko. 1994an, Trevisoko (Italia) "Toti dal Monte" jaialdi ospetsuan epaimahaiaren aipamen berezia izan zuen Mozarten operak kantatzeko moduagatik.

*Nació en San Sebastián. Hizo sus estudios vocales en la Escuela Superior de Canto de Madrid, bajo la dirección de Marimí del Pozo. Recibió clases magistrales de Victoria de los Angeles, Teresa Berganza y Aldo Balbin.*
*Ha actuado con la práctica totalidad de las mejores orquesta españolas en las más importantes salas de conciertos del país : Madrid, Valencia, Palma de Mallorca, Santiago de Compostela, Zaragoza, etc.*
*Ha cantado con agrupaciones extranjeras, como Orchestre Bayonne-Côte Basque, Sinfónica de Bratislava, Orquesta Nacional de Letonia... y especialmente con los Virtusoso de Moscú en España, Francia y Rusia.*
*Con ellos interpretó "Los Improperios" de Mompou en el Festival de Collmar (Francia), obteniendo una gran critica.*
*Numerosas han sido sus actuaciones en ópera: Papageno en "La flauta mágica" de Mozart ; Eneas en "Dido y Eneas" de Purcell ; Gugliemo en "Cosí fan tutte" y Figaro en "las bodas de Figaro" de Mozart, etc...*
*En 1994 obtuvo una mención especial del jurado del célebre concurso "Toti dal Monte" de Treviso (Italia), donde fueron especialmente alabadas sus interpretaciones de las óperas de Mozart.*

# ERRENTERIAKO ANDRA MARI ABESBATZA

Jose Luis Ansorenak sortu zuen 1966an eta bere zuzendaria izan da 1994ko otsaila arte, Jose Manuel Tife Iparragirreren eskuetan bere borondatez zuzendaritza utzi duen arte.
Gasteiz, Tolosa, Torrevieja, Arezzo (Italia) eta beste zenbait lekutako koru-lehiaketetan parte hartu izan du, era guztietako sariak jasoz.
Euskal Herria, Santander, A Coruña, Logroño, Zaragoza Bartzelona, Madrilgo jaialdi eta musika-aste eta ziklo ugarietan abestu du. Era berean, hainbat kontzertu-jira burutu ditu, Galizia, Andaluzia, Canarias, Suiza, Belgika, Austria, Hungaria eta beste zenbait herritan zehar. Aipatzekoak dira bereziki, 1991n bere sorreraren Zilarrezko Ezteiak ospatzen zirela eta, Argentinan zehar burutu zuena eta batez ere Buenos Aireseko Colon Antzokian eman zuen kontzertu gogoangarria.
Opera eta zartzuela garaian antzeztokietan parte hartzeaz gainera mota guztietako koru-musika lantzen du.
Bach, Händel, Mozart, Haydn, Liszt, Berlioz, Fauré, Debussy eta beste hainbat musikagileren meza handi, oratorio eta koru sinfonien bertsioek balio berezia izan dute.
Bere ezaugarririk nabarmenena Euskal Herriko musika lantzea da; hau dela eta, Errenterian burutzen den MUSIKASTE Euskal Musikagileen Astea sortu du. "Mostra" honetarako eta ERESBIL-ERESIAK urteroko ziklorako, EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA Euskal Musikagileen Artxiboa sortu du, garai guztietako 1.000 eta gehiago euskal musikagileren 18 bat mila partituraz osaturiko bilduma. Honek nortasun zehatz eta berezia eman dio, eta horregatik esan daiteke bertako musikagileen egitarau monografikoak kantatzeko edota besteei gure herriko musikarien omenaldi-muntaietan laguntza eman eta aholkatzeko abesbatzarik prestatuena dela.
Euskal musikagileen lanez osatutako iraupen luzeko zazpi diska grabatu ditu eta beste zenbait musika-elkarterekin beste lau diskaren grabaketan parte hartu.
Garrantzi berezia izan du grabatu duen "Oi Betleem" azken diskak, Lorenzo Ondarra musikagileak Andra Mari Abesbatzari bere sorreraren Zilarrezko Ezteietan eskeini dion euskal gabon kanten suiteak.
Konpaktu-sisteman eginiko azkeneko grabaketak Aita Donostia eta Jesus Guridiren musika-lanak bildu ditu, eta hauetariko nagusiena Donostiako musikagile kaputxinoaren "Poema de la Pasion" partitura garrantzitsua da.

*Fué fundada en 1966 por José Luis Ansorena, como coro de la Parroquia de Nuestra Señora de Fátima, siendo él su director hasta febrero de 1994, mes en el que cedió voluntariamente el puesto al director actual, José Manuel Tife Iparraguirre.*
*En febrero de 1981 la Coral Andra Mari adquirió naturaleza de Sociedad Civil, aunque siguió domiciliada en la Parroquia de los P.P. Capuchinos y ha contribuido frecuentemente en sus celebraciones litúrgicas.*
*Ha participado en distintos Concursos con diversidad de premios y ha actuado en Festivales, Semanas y Ciclos musicales por todo el País Vasco, Santander, La Coruña, Logroño, Zaragoza, Barcelona, Madrid, Sevilla, Cádiz, etc...*
*Ha realizado giras por Suiza, Bélgica, Austria, Hungría, Italia, Francia, Argentina, etc...*
*Cultiva todo género de música coral, incluida la participación escénica en ópera y zarzuela. Pero su especialidad más característica es el cultivo de la música vasca, que le llevó a crear el Festival de MUSIKASTE, Semana de Compositores Vascos, que anualmente se celebra en Rentería. Para ello fundó el Archivo de Compositores Vascos, EUSKAL ERESLARIEN BILDUMA, con la recopilación de más de 18.000 partituras de más de mil compositores vascos de todos los tiempos.*
*Ha grabado diez discos de larga duración y dos discos compactos. Es la entidad coral que mayor número de obras del P. Donostia ha grabado, destacándose entre ellas el "Poema de la Pasión".*

# JESUS MARI ETXEBERRIA

Bederatzi urte zituenean hasi zen musika ikasten. Klarinete-ikasketak burutu zituen eta "Ikasketa Amaiera" eta "Paulino Caballero" sariak eskuratu zituen. Gero, konposizio-ikasketak burutu zituen Agustin González Acilu eta Francisco Escuderorekin. Berak sortutako zenbait musika-lan estrenatu ditu Donostian eta Iruñean.
23 urte zituenean, Donostiako Kamara Orkestra sortu zuen. Urte horretan bertan, Gipuzkoako Foru Diputazioak beka bat eman zion zuzendaritza-ikastaro bat burutzeko uda horretan zehar Vienan. Urtebete geroago, "Royal Academy of Music" munduko musika-eskolarik garrantzitsuenetarikoan sartzeko froga gainditu zuen eta hiru urtetan zehar aritu zen bertan ikasten. Izan zituen irakasleen artean ondoko hauek aipa daitezke: Colin Metters, George Hurst, John Carewe eta Sir Colins Davis. 1988an "Pablo Sarasate" Orkestrarekin hasi zen lankidetzan. Hurrengo urtean Euskadiko Orkestra Sinfonikoa zuzendu zuen lehenengo aldiz. Gaur egun aipatutako bi orkestrekin ari da lankidetzan. Londresen izan zenean "The European Sinfonia" sortu zuen eta lau gira burutu zituen Espainian zehar. 1993an Compostela 93 ospatzeko antolatu zen ez-ohiko kontzertuan Beethoven-en Bederatzigarren Sinfonia zuzendu zuen "The European Sinfonia", "The London Philarmonic Choir" eta Elena Obraztsova-rekin batera, besteak beste. Burutu duen azkeneko itzulian ondoko leku hauetan eman ditu kontzertuak: Bartzelonako Palau Antzokian, Valentziakoan, Bilboko Arriagan, Donostiako Victoria Eugenia Antzokian eta Cantabriako Jaialdien Jauregian. Azken honetan kritika oso onak izan zituen Beethoven-en 5. Sinfoniaren kontzertua eta Sergei Prokovieiv-en "Pedro eta Otsoa" zuzendu zituenean; azken honetan Ovidi Montlior eta Miguel Bosé-k parte hartu zuten narratzaile lanetan. Era berean, Letoniako Orkestra Nazionalarekin batera N. Rimski-Korsakov-en Sherezade zuzendu zuen beste zenbait musika-lanekin batera. 1995eko maiatzean eta Carl Orff-en jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez, kontzertu-itzuli bat burutu zuen Euskal Herrian zehar Errusiako Orkestra Nazionalarekin. Egitarauan "Carmina Burana" zuzentzeaz gainera, berak sortutako "Elegia" musika-lanaren erabateko estrenaldia burutu zuen.

*Comenzó su formación musical a los nueve años. Estudió clarinete, instrumento con el cual obtuvo los premios "Paulino Caballero" y "Fin de carrera". Más tarde cursó estudios de composición con Agustín Gonzalez Acilu y Francisco Escudero. Ha estrenado varias de sus obras en San Sebastián y Pamplona.*
*A los 23 años fundó la "Orquesta de Cámara de Donosti". Ese mismo año obtiene una bolsa de estudios de la Diputación de Guipúzcoa para estudiar Dirección de orquesta en el conservatorio de Viena durante un curso de verano. Un año más tarde pasa el examen de admisión en uno de los centros más importantes del mundo, la "Royal Academy of Music" de Londres, donde estudió por tres años consecutivos. Entre los profesores destaca: Colin Metters, George Hurst, John Carewe y Sir Colin Davis.*
*En 1988 comienza su colaboración con la Orquesta "Pablo Sarasate". Al año siguiente conocerá su debut con la Orquesta Sinfónica de Euskadi. Con ambas orquestas colabora regularmente.*
*Durante su estancia en Londres fundó "The European Sinfonia" con la que ha realizado cuatro giras por toda España. Entre ellas está el concierto extraordinario que abría la programación de Compostela 93, año Jacobeo, con la Novena Sinfonía de Beethoven y la participación de "The European Sinfonia", "The London Philarmonic Choir" y Elena Obraztsova entre los solistas. Su última gira incluía conciertos en el Palau de Barcelona, en el de Valencia, en el teatro Arriaga de Bilbao, Victoria Eugenia de San Sebastián y en el Palacio de Festivales de Cantabria, donde recibió excelentes críticas por su interpretación de la 5ª Sinfonía de Beethoven y de "Pedro y el Lobo" de Sergei Prokofiev junto a Ovidi Montlior y Miguel Bosé como narradores.*
*También ha dirigido la Orquesta Nacional de Letonia, en Riga, con un programa que incluía Sheherazade de N. Rimski-Korsakov.*
*En Mayo de 1995 hace una gira por el País Vasco con la Orquesta Nacional de Rusia uniéndose a la celebración del centenario del nacimiento de Carl Orff. En el programa, además de "Carmina Burana", se incluía el estreno mundial de la última obra para orquesta de Jesús M. Echeverría: "Elegía".*